

KULTUR LEIOA UDAL INSTALAZIOETAN LIBURUTEGIA ERABILTZEKO PROTOKOLO ETA ARAUAK

Liburutegian egitekoak diren jardueretarako prebentzio-neurriak definitzea da dokumentu honen helburua, horrek COVID-19aren hedapenari aurre egiten lagundu diezagun eta, hala, instalazioak beti bezain seguruak izan daitezzen bai erabiltzaileentzat eta bai langileentzat.

Gomendio hauek bat datoz, zorrotz-zorrotz, osasun- eta kirol-agintarien aholku eta neurriekin.

Liburutegia irekitzeko osasun- eta prebentzio-neurri orokorrak

Liburutegia berriz ireki aurretik, garbiketa-enpresa batek produktu homologatuak erabiliz sakon-sakon garbitu eta desinfektatu ditu instalazio guztiak.

Seinale eta balizak jarri dira, jendearen zirkulazioa eta harremanak egokiak direla bermatzeko.

Kartelak ere jarri dira denek ikusteko moduko tokietan, osasun-agintariak COVID-19aren kontra ezarritako higiene- eta babes-neurriez informatu, neurriok nahitaez betetzekoak direla jabeaz eta, batez ere, instalazioetan daudenei eskuak sarritan garbitu eta urruntze sozialeko neurriak bete behar dituztela gogorarazteko.

Liburutegiko sarrera eta pasabideetan, gainera, zenbait segurtasun-elementu jarri dira, hala nola paper-biribilkiak, zakarrontziak, desinfektatzaile-lainoztagailuak eta hidrogel-dosifikagailuak.

Halaber, martxan jarri dira sarbidea kontrolatzeko sistemak, indarrean dauden osasun-neurriak betetzen direla bermatzeko.

COVID-19a atzemateko probetan positibo emandakoek, asintomatikoak izan arren, ez dute liburutegian sartzerik izango.

Erabiltzaileei tentuz jokatzeko eskatzen diegu, eta, sintomarik txikienaren aurrean, edota kutsaturik egon daitezkeela susmatuz gero, edota kutsaturik dagoen edo egon litekeen baten batekin egon badira, gomendatzen diegu ez dezatela inolako jardueratan parte hartu, eta berehala jar daitezela harremanetan osasun-zerbitzuekin eta bete dezatela haiek esana.

Udal instalazioetan sartu aurretik tenperatura hartzea komeni da.

Ahal dela, erabiltzaileek ez dute denek erabiltzekoak diren objektu, ekipamendu eta gainaldeak ukitzerik izango, hala nola eskutokiak, sarbideetako atak, eskudelak, barandak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste elementu batzuk.

Erabiltzaileek, elkar ez kutsatzeko, zorrotz bete beharko dituzte garbitasun-, jokabide- eta zaintza-irizpide guztiak. Esate baterako, eskuak ondo garbitu beharko dira liburutegian sartu eta irten aurretik eta ondoren.

Maskara nahitaez erabili beharko da. Halakorik denean, aintzakotzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aginduak.

Liburutegiko ordutegia

Kultur Leioa zentroko liburutegia 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Liburutegia 14:00etatik 16:00etara itxiko da, instalazioak desinfektatzeko.

Liburutegiko guneen erabilerari buruzko arauak

Ordutegi, edukiera eta guneei buruz ezarritako arauak nahitaez betetzekoak dira.

Hona hemen liburutegirako edukiera-irizpideak:

Irakurgela, 2. solairua – 38 lagun
Dokumentuen mailegutza, 2. eta 3. solairuak – 5 lagun solairuko
Helduen irakurgela, 3. solairua – 17 lagun
Ume eta gazteen irakurgela, 2. solairua – 12 lagun

Liburutegiko jarduerak:

Irakurle-kluba – 15 lagun
Ipuin-kontalaria – 15 lagun

12 urtetik beherako erabiltzaileei heldu batek lagundu beharko die.

Maileguak itzultzeko, dokumentuak Kultur Leioa zentroaren sarrerako postontzian sartu beharko dira, eta itzulitako dokumentu guztiak indarrean dauden protokoloen arabera tratatu ondoren, aldi batez ez da haiek mailegutzan hartzerik izango, liburutegian dauden eskuragarritasun libreko dokumentuak bezalaxe.

Besterik esan arte, liburutegiko zerbitzu hauek bertan behera geldituko dira: hemeroteka, Internet, umeteka eta umeen liburutegiko jarlekuak.

Erabiltzaileak esaten zaien lekuan geldirik egoten ahaleginduko dira une oro, haien arteko harremanak ahalik gutxienak izateko.

Udal instalazioetako komunak zabalik egongo dira beti. Pertsona bakarra sartu ahal izango da bertara, eta halaxe adieraziko da komun bakoitzerako sarreran.

Zabor guztiak zakarrontzi eta edukiontzietara bota beharko dira.

Erabiltzaileek ez dute materialik partekatu edo trukatu.

Liburutegian dauden bitartean, erabiltzaileek segurtasun-tartea gorde beharko dute.

Zirkulazio- eta segurtasun-neurriak aintzat hartuz zuzendaritzak zer zehazten duen, erabiltzaileak horren arabera sartu ahal izango dira liburutegiko guneeetara. Ahal den neurrian, gune bakoitzak sarrera bat eta irteera bat izango ditu, baina halakorik egiteko modurik ez badago, erabiltzaileek ohiko sarbidea erabiliko dute.

Behin egin beharrekoak eginez gero, erabiltzaileek lehenbailehen alde egin beharko dute liburutegitik, haien arteko harremanak eta arriskuak ahalik gutxienak izateko.

Garrantzizkoa

Segurtasun- eta higiene-arau eta -protokolo guztiak bete beharko dira, denek ere zure eta herritar guztien osasuna babestea baitute helburu. Gurekin batera lan egitea eta arduraz eta zuhur jokatzeari eskatzen dizugu, kutsadura-arriskua ahalik txikiena izan dadin.

Udal instalazioetan sartzen diren pertsona guztiek bete beharko dituzte protokoloak.

Osasun-agintariek unean-unean zer esan, udal instalazioen erabilera-protokolo eta -arauak horren baitan egongo dira une oro, eta nahitaez bete beharko dira.